

ERRAUSTEGIA BAI, ERRAUSTEGIA EZ



Batzuetan, ikuspegi politikoegi batean kokatzen garenean, objektibitatea galtzen amaitzen dugula uste dut.

Adibidez, hortxe dugu erraustegiaren gaia.

Nik ez dut erraustegirik nahi hasiera batean planteatu zen bezala: sortzen dugun zabor guztia erretzeko eta horren truke energia lortzeko makina–mostruo

bat izan.

Hori astakeria galanta zen. Erraustegitik hurbileko inguru guztietan sekulako kutsadura sortuko zen. Horretaz ez dut dudarik txikiena ere.

Alde horretatik, indar politiko batzuek hasieratik bertatik bultzatutako aukera zuzena zela uste dut: hondakinak gaika bildu behar dira, eta gaikako bilketa horretan gutxienez % 80ko emaitzak lortu behar dira.

Hori da guztiaren hasiera. Hori betetzen bada, gainerakoa ondo joango da.

Noski, gaikako bilketan jasotzen diren hondakinak birziklatzeko zentroak ere behar dira¹.

Izan ere, gakoa hori da: sortzen ditugun hondakin guztien % 80 jasotzea, eta birziklapenaren bitartez % 80 horri irteera bat ematea. Hori lortzen denean, hondakinak kontrolpean dauzkagu.



Paperak, kartoiak, plastikoak, latak, botilak... material horiek guztiak arazorik gabe birziklatzen dira (birziklatzeko azpiegitura on bat baldin badago...).

Orain, goazen gainerako % 20arekin. Ez naiz gai honetan aditua, baina % 20 horren erdiari, % 10ari alegia, tratamendu espezifikokoak emango zaizkiola pentsatzen dut, zein hondakin-mota den: aparatu elektronikoak, jostailuak, altzariak, olioak eta etxeko gai kimikoak...

Azkenik, sortzen den zabor guztiaren % 10 inguruko errefusa geratuko da –edo geratu behar luke–, gauzak ondo eginez gero.

¹ Diru-baliabideak alimaleko erraustegiak eraikitzen xahutu ordez, hobe diru-baliabide horiek erabiliko bagenitu mota guztietako birziklatze-zentroak eraikitzeko.



Maila horiek erdiesten direnean, pozik egon gaitzke: ondo egin dugu, hondakinak gaika bildu ditugu, tratatu eta birziklatu daitezkeen hondakin guztiak tratatu eta birziklatu egin ditugu, eta orain... % 10eko errefus huts eta gordina geratzen zaigu.

Erre al daiteke % 10 hori? Nik pentsatzen dut baietz, erre litekeela. Beste batzuek agian lurperatzea nahiago dute. Kasu batean airera doa, eta bestean lurrera. Baina era kontrolatu, mailakatu batez egiten bada, eraginkortasun handiko iragazkiak erabiliz (errausketaren

kasuan), zergatik ez?

Hasieran, norbaitek zabor guzti-guztia erre nahi zuen, % 100; eta gainera, zaborra kanpotik ekartzeaz ere hitz egiten zuten, errauste-prozesuan energia lortzeko. Erokeria bat. Denok gaixoaraziko gintuzketen.

Baina, guztizkoaren % 10 erretzea? Bueno, bideragarria izan liteke. Baina horretarako ez litzateke beharrezkoa izango erraustegi erraldoi bat eraikitzea. Ondorioak are eta gehiago "lausotzeko", elkarrengandik urrun kokatutako 3-4 labe izan genitzake.

Esaterako, hiru labe, bakoitza 10.000 tonakoa urtean, elkarrengandik ahalik eta urrutien jarriak. Hasieran eraiki nahi zuten erraustegia 260.000 tona hondakin erretzeko pentsatuta zegoela uste dut; gaur egungoa, 160.000 tona erretzeko diseinaturik dago. Eta nik tamaina txikiko 3 labe ditut gogoan ("erraustegi" izena ere ez lukete mereziko), bakoitza 10.000 tona erretzeko gai, urtean.

Egia esateko, hondakinak errausteko labe txikiak badaude: ospitaleetan, hiltegiatan, hilerrietan...

Kantitateak, tamainak, garrantzia duela esan nahi dut. Kasu honetan, hain zuzen, garrantzia du, eta handia gainera. San Joanetan sute bat egiteagatik ez da ezer gertatzen, baina San Joanetan herri txiki batean 50 sute egiten baditugu, herri horretako biztanle guztiak ospitalean amai daitezke arnasa hartzeko arazoekin, asma-arazoekin, e.a.

Nire ustez, erraustegiaren gaian mundu guztiak izan du arrazoi pixka bat / arrazoi pila bat. Baina horren modu basatian planteatutako erraustegi horren aurkako jarrera hartu zutenek bereziki asmatu zutela uste dut. Dena den, erraustegiaren bultzatzaileek atzera egin eta erraustegi "txiki" bat² egitea proposatu zutenean, ez zioten utzi nahi izan. Zergatik? Gaia ordurako erabat politizatuta zegoelako. Eta berez politikoa ez den



² Komatxo artean jartzen dut, ikusi beharko genuke-eta batzuek erraustegi "txiki" batez zer ulertzen duten. 160.000 tona erraustek onartezina izaten jarraitzen duela iruditzen zait.

gai bat politizatzen denean, objektibitatea galdu egiten da. "Aurkari politikoa jipoitzean datza kontua". Gainera, Aldundian bazegoen beste gobernu bat eta horrek beti ematen du halako euforia bat, dosifikatu ezik, bi ahoko ezpata bilaka daitekeena.



Azkenik, erraustegi bat eraikitzea ala ez eraikitzea lehen mailako afera politiko bihurtzen da, eta apustu horretan alderdi politiko ezberdinek "larrua dute jokoan" aukera politiko gisa, eta horrek dakar irizpide teknologiko eta zientifikoak alde batera uztea edota ingurumenari eta herri-osasunari dagozkion irizpideak

bazter uztea.

Planteamendu horiekin denok ateratzen gara galtzaile. Oro har, malguagoak izan beharko genukeela uste dut.

Beti gabiltza txakurra eta katua bezala, indarra ahotik joaten zaigu, eta azkenean gauzak era txarrean eta ezinean egiten amaitzen dugu.

Erraustegiaren gaia okerretik okerrera joan da. Diru-baliabide-kopuru ikaragarriak erabili dira, neurri handi batean xahutu egin direnak; areago, berez dirudunak eta aberatsak ziren eraikitzaileei diru-kopuru ikaragarriak oparitzera iritsi gara, eta horrekin pozik ez, gero, atzetik, beste aukeraren defendatzaileak etorri zaizkigu eta banketxeekin hipotekatu gaituzte era gorrotagarri eta onartezin batez, eta gutxi balitz, eraiki beharreko erraustegiaren kudeaketa esku pribatuetan geratu da.



Okerrago ezin genezakeen egin, bai batzuek bai besteek.

Ez dakit, beharbada, gauzak hobeto egiteko ezgai gara. Muga jo ote dugu...?

Laburbilduz, hondakinen arazoari eman beharreko konponbiderik arrazoizkoena, nire ustez, honako hau izango litzateke:

- 1) Gaikako bilketan % 80ko emaitzak lortzea lurralde osoan.
- 2) Gaikako bilketa osoari irteera emango dion birziklatze-azpiegitura bat edukitzea.
- 3) Gainerako % 20 (errefusa) ahalik eta gehien tratatzea, hondakin bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta.
- 4) Gainerako % 10 (super errefusa) edo lurperatzea edo labe txikietan eta kantitate txikietan erretzea (bi aukerak bateragarriak izan daitezke).
- 5) Labe txiki hauen segurtasuna areagotzeko beharrezko iragazki guztiak erabiltzea.

- 6) Iragazkietan atxikita gelditu ezinezko toxikotasun handiko zatikiak sorrarazten dituzten materialak erretzea baztertzea (material hauek dira egokiagoak izango liratekeenak lurperatzeko, erretzeko baino).
- 7) Labe txiki hauetan erretzen den guztia etengabe neurtzeko sentsoreak jartzea eta sentsoreen emaitzak web gune batean jartzea, aipatu emaitzak denbora errealean jarraitzeko, eta gaien interesa duten pertsona edota elkarte oro bertan sar daitezen inongo aurre-baldintzarik gabe.
- 8) Gaikako bilketan eta birziklapenean % 80ko emaitzak lortzen ez diren bitartean, inongo erraustegirik martxan jartzea debekatzea.
- 9) Kanpotik ekarriko hondakinak erretzea erabat debekatzea.
- 10) Hondakinak erretzetik etekinak lortzea helburu duten planteamenduak (“zenbat eta hondakin gehiago erre, orduan eta diru gehiago irabazi”) erabat debekatzea.
- 11) Herritarrak euren hondakinak gaika biltzera behartuko dituzten sistemak martxan jartzea eta, gainera, gure lurraldeko herrietan hondakinak gaika biltzea sistematikoki boikotatzen duten pertsonen aurkako neurriak (administratiboak eta penalak) hartzea, bilketa-sistema dena delakoa izanda, hau da, atez atekoa edota beste edozein sistema izanda.

Eta, orokorrean, horixe izango litzateke nire iritzia hondakinen arazoari buruz, erraustegiei buruz, hondakinak gaika biltzeko sistemari buruz, eta abarri eta abarri buruz. Hori da nire iritzia, eta iritzia badudanez, ez zait axola berau ezagutzera ematea eta, beraz, gaien “bustitzea”.